Kontratazio Organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du; hark gainbegiratuko ditu lanak, erabakiak hartuko ditu eta beharrezkoak diren jarraibideak aginduko ditu, hitzartutako prestazioak behar bezala burutzen direla ziurtatzeko, erakunde kontratistak esleitzen dizkion gaitasunen barruan betiere.	El Órgano de Contratación designará un responsable del contrato, al que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de facultades que la entidad contratante le atribuya.
Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, eta erakunde kontratistari lotuta egon daiteke edo ez.	El responsable del contrato podrá ser una persona física o jurídica, vinculada a la entidad contratante o ajena a ésta.
Kontratistak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak. Jarraibide horiek zuzenean jakinaraziko zaizkio kontratistak izendatutako solaskideari edo kontratuaren arduradunari.	Las instrucciones que imparta el responsable del contrato serán de obligado cumplimiento para el contratista. Dichas instrucciones serán comunicadas directamente al interlocutor o responsable del contrato designado por el contratista.
20. KONTRATUA GAUZATZEA	**20. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:	El contrato se ejecutará con arreglo a las siguientes condiciones:
a) Kontratistak kontratua dagozkion baldintzen eta terminoen arabera gauzatuko du, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta haren Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera, eta erakunde kontratistak, kontratua interpretatzean, kontratistari	**a)** El contratista ejecutará el contrato según sus términos y condiciones, según lo dispuesto en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y su Carátula, en el Pliego de Prescripciones Técnicas y en la oferta presentada por el contratista, así como conforme a las instrucciones que, en interpretación de éste, diera al contratista la

emandako aginduei jarraiki.	entidad contratante.
b) Kontratua indarrean dauden eta lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzearen mende dago.	**b)** El contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.
Testuinguru horretan, balio-iritzien araber kuantifikatzen diren irizpideei buruzk dokumentazioa jasotzen duen 2. gutun-azalean lizitatzaileek adieraziko dute zein hitzarme kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langile propioei edo azpikontratatutako enpresako langileei, adjudikaziodun izanez gero. Kontratistak adierazten duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa, esleipenaren ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.	En este contexto, en el Sobre 2 comprensivo de la documentación relativa a criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, los licitadores indicarán el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores, sean propios o de empresas subcontratadas, que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios. La información sobre el convenio colectivo que el contratista declare aplicable a los trabajadores que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.
Horrez gain, kontratua esleitu ondoren langile horiei aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du kontratistak.	Adicionalmente, el contratista estará obligado a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores.
Kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den	Se deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio

sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko da, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.	colectivo sectorial de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquél.
Halaber, enpresa esleipendunak modu eraginkorrean bermatu eta egiaztatu beharko du kontratua gauzatzen duen plantillari ez dagoela emakumeen eta gizonen arteko lansari-bereizkeriarik balio eta/edo lanbide-kategoria bereko lana egitean.	Asimismo, la empresa adjudicataria deberá garantizar y acreditar de manera efectiva para la plantilla que ejecute el contrato que no existe una discriminación retributiva entre mujeres y hombres en la prestación de un trabajo de igual valor y/o categoría profesional.
Atal honetan xedatutakoa betearazpenbaldintza berezia eta funtsezko betebeharra da SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bera ez betetzea izango da, erakunde kontratatzailearen borondatearen arabera.	Lo dispuesto en el presente apartado tiene el carácter de condición especial de ejecución y obligación esencial a los efectos previstos en el artículo 211.f) de la LCSP, siendo por tanto cualquier incumplimiento de la misma causa de resolución del contrato, a voluntad de la entidad contratante.
c) Kontratua kontratistaren arrisku eta menturarako gauzatuko da.	**c)** El contrato se ejecutará a riesgo y ventura del contratista.
d) Erakunde kontratistak, noiznahi eta edozein bide erabilita, kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua modu egokian gauzatzen dela.	**d)** La entidad contratante podrá controlar, verificar y supervisar, en cualquier momento y por cualesquiera medios, el correcto cumplimiento de las obligaciones contractuales y la adecuada ejecución del contrato.
Horretarako, erakunde kontratistak egoki iritzitako kanpoko laguntzak eskatu ahal izango du, kontratuaren betebeharrak zuzen betetzen direla egiaztatu edo ikuskatzeko, bai eta	A tal fin, la entidad contratante podrá recabar las asistencias externas que considere oportunas para la verificación o auditoría del correcto cumplimiento de las

lanek kalitate-maila egokia dutela ziurtatzeko ere.	obligaciones contractuales, así como del adecuado nivel de calidad en el desarrollo de los trabajos.
Kontratistak erakunde kontratistak zerbitzuak direla-eta eskatzen dizkion guztiak emango dizkio, beharrezkoa den laguntza emanez, kostu gehigarririk gabe, eta erraztasunak emango dizkio, halaber, kontratatutako zerbitzuei loturiko lan eta administrazio dokumentazioa edo bestelakoa eskuratzeko.	El contratista facilitará cuantos datos relacionados con los servicios le requiera la entidad contratante, prestando, sin coste adicional alguno, cuanta asistencia sea necesaria, y facilitando, incluso, el acceso a la documentación laboral, administrativa o de otro tipo, relacionada con los servicios contratados.
Kontratistak ez ditu oztopatuko erakunde kontratistaren gainbegiratze eta kontrol lanak.	El contratista no podrá obstaculizar las labores de inspección y control ejercidas desde la entidad contratante.
Nolanahi izanda ere, erakunde kontratistak ez betetzeren bat edo eragozpenen bat hautemanez gero, zuzenean jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, haren eskumenekoa baita, azken batean, zerbitzua ematen duten langileak antolatzea, gainbegiratzea edo, hala badagokio, zigortzea.	Ello no obstante, de advertirse cualquier tipo de incumplimiento o reparo por la entidad contratante, será comunicado directamente al responsable del contrato, a quien corresponderá en última instancia las facultades organizativas, supervisoras, o en su caso, sancionadoras del personal que presta el servicio.
e) Langile guztiak kontratistaren mende baino ez dira egongo, eta hark izango ditu enpresaburu moduan dagozkion eskubideak eta betebeharrak. Ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin erakunde kontratistari, lan harreman horiei edo gainerako betebeharrei loturik.	**e)** La totalidad del personal dependerá exclusivamente del contratista, ostentando el mismo los derechos y deberes inherentes a su condición de empresario, sin que pueda realizarse reclamación alguna a la entidad contratante derivada de tales relaciones laborales o restantes obligaciones.

f) Kontratista izango da erantzule bakarra edozein ezbehar edo erreklamazio (judizial edo estrajudizial) gertatzen bada, kontratua gauzatzen ari diren langileei lotuta, bai bere langileei bai azpikontratetako langileei lotuta, eta erakunde kontratistak ez du bere gain hartuko kontratistari zuzenean edo zeharka dagokion inolako erantzukizunik, lanari (segurtasuna, higienea eta laneko osasuna barne), Gizarte Segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratistaren ardura izango dira, guztiz, kontratua betetzeagatik gertatu daitezkeen hondamendi guztiak.	**f)** El contratista será el único responsable ante cualquier siniestro o reclamación (judicial o extrajudicial) relacionada con el personal que trabaje en la ejecución del contrato, propio o de las eventuales subcontrataciones, no asumiendo la entidad contratante ningún tipo de responsabilidad laboral (incluida la referente a la seguridad, higiene y salud laboral), de Seguridad Social o fiscal que el contratista contraiga directa o indirectamente. Igualmente, el contratista asumirá exclusivamente las responsabilidades que pudieran derivarse de siniestros originados por la ejecución del contrato.
g) Kontratistak **karatularen 15. puntuan**, hala badagokio, berariaz ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu.	**g)** El contratista vendrá obligado a cumplir las condiciones que, en su caso y con carácter específico, se indiquen en el **punto 15 de la Carátula.**
21. KONTRATU-BETEBEHARRAK	**21. OBLIGACIONES CONTRACTUALES**
Honako hauek izango dira kontratu-betebeharrak:	Serán obligaciones contractuales las siguientes:
a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan, agiri honetan, egikaritzeproiektuan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoari zorrotz lotuta.	**a)** El cumplimiento de la obligación principal del contrato con estricta sujeción a lo establecido en su clausulado y en el presente Pliego y en el Pliego de Prescripciones Técnicas.
b) Indarrean dauden eta lan-arloan,	**b)** El cumplimiento de las disposiciones

Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunean aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea, klausula-orri hauen 21. klausularen b) idatz-zatian jasotako moduan. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratua gauzatzen duen bitartean, langileari dagokion lanbidekategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.	legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo, en los términos recogidos en el segundo guion de la Cláusula 20 del presente Pliego. En dicho contexto, el contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquél.
c) Kontratua egiteko atxikitzea kontratistaren eskaintzan konprometitutako giza baliabideak (bereak nahiz azpikontratatutako enpresarenak) eta/edo baliabide materialak.	**c)** La adscripción a la ejecución del contrato de los medios humanos, sea personal propio o de empresa subcontratada, y/o materiales comprometidos en la oferta del contratista.
d) Langileei agindu, lana egiteko irizpide eta jarraibide guztiak ematea, erakunde kontratatzailea lan-harreman horietatik kanpo egonik eta, nolanahi ere, horietan eragiteari uko eginda. Era berean, enpresa kontratistari dagokio, esklusiboki, langileen lan-ordutegia zaintzea, egon daitezkeen ordutegi-lizentziak edo baimenak zaintzea, edo enplegatzailearen ahalmenen beste edozein adierazpen egitea. Hala ere, enpresa kontratistaren erantzukizun esklusiboa da zerbitzua behar bezala	**d)** El impartir todas las órdenes, criterios de realización del trabajo y directrices a sus trabajadores/as, siendo la entidad contratante del todo ajena a estas relaciones laborales y absteniéndose, en todo caso, de incidir en las mismas. Corresponde asimismo a la empresa contratista, de forma exclusiva, la vigilancia del horario de trabajo de los trabajadores, las posibles licencias horarias o permisos o cualquier otra manifestación de las facultades del

betetzen dela ziurtatzea, baldintza-agirietan ezarritako moduan.	empleador. No obstante, es responsabilidad exclusiva de la empresa contratista, en la forma establecida en los pliegos, asegurar que el servicio quede convenientemente cubierto.
e) Bere jarduera egiteko izan behar diren lizentziak eta baimenak eskuratzea, bere kontura.	**e)** La obtención, a su cargo, de cuantas licencias y permisos fuesen necesarios para el ejercicio de su actividad.
f) Sektorean unean-unean indarrean den araudian xedaturikoaren arabera ematea zerbitzuak. Horretarako, bai kontratistak bai haren langileek unean-unean indarrean den araudiak eskatutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak eduki beharko dituzte.	**f)** La prestación de los servicios con sujeción a lo dispuesto en la normativa sectorial vigente de aplicación en cada momento. A dichos efectos, tanto el contratista como el personal del contratista deberán contar con todos los certificados que, en su caso, acrediten el cumplimiento de cualesquiera obligaciones exija la normativa vigente en cada momento.
g) Behin betiko bermea jarri eta hari eustea.	**g)** El mantenimiento y reposición de la garantía definitiva.
h) Kontratistak egindako proposamena betetzea, Karatularen 12. puntuan adierazitako balorazio irizpideei dagokienez.	**h)** El cumplimiento de la propuesta realizada por el contratista en relación con los criterios de valoración indicados en el punto 12 de la Carátula.
i) Kontratua gauzatzen den bitartean, agiri honen 25. klausulak kontratistari eskatzen dizkion estaldurak eta aseguruak kontratatu edo edukiko ditu gutxienez.	**i)** La contratación o mantenimiento, como mínimo, durante la ejecución del contrato, de las coberturas y seguros propios exigidos al contratista en la Cláusula 25 del presente Pliego.
j) Kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz	**j)** La indemnización de todos los daños y perjuicios que se causen a

hirugarrenei egindako kalte eta galera guztien kalte ordaina kontratistak ordainduko du.	terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
k) Kontratua behar bezala betetzeko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, batere kosturik gehitu gabe, hala nola lan eta informazio bileretara joatea. Betebehar hori indarrean izango da kontratua amaitu arte.	**k)** La prestación, sin derecho de pago suplementario, de los servicios que la entidad contratante estime necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del contrato.
l) Greba izanez gero ere ematea zerbitzua. Zerbitzu horiek ez badira bermatzen, entitate kontratatzaileak zerbitzuak betetzeko izan behar diren kontratuak sustatzeko eskumena edukiko luke, kontratu horien zenbatekoa beraien fakturaziotik kenduz. Greba den bitartean, betetzen diren zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.	**l)** El cumplimiento de los servicios en el supuesto de huelga. Si no se garantizasen tales servicios, la entidad contratante estaría facultada para promover los contratos precisos para cubrir los servicios, deduciéndose de su facturación el importe de los referidos contratos. Durante el período de huelga, se abonará únicamente el precio correspondiente a los servicios efectivamente prestados.
m) Langileak ordezkatzea, baldin eta ez badute beren eginkizuna egin behar den arduraz eta eraginkortasunez egiten, ez badute egin beharrekoa egiteko gaitasunik, kontu gutxirekin ematen badituzte zerbitzuak edo kontratuaren martxa onari kalte egiten dioten gauzak egiten badituzte. Entitate kontratatzaileak helburu horretarako	**m)** La sustitución del personal en el supuesto de que no cumpliera su función con la debida diligencia y eficiencia, no estuviese capacitado, fuese poco cuidadoso en el desempeño de los servicios o cometiese actos perniciosos para la buena marcha del contrato. Ello en el plazo máximo de veinticuatro horas desde el requerimiento que

eskakizuna egiten duen momentutik hogeita lau orduko gehieneko epearekin. Langileak ordezkatzeak ez du inolako erantzukizunik izango entitate kontratatzailearentzat eragindako langileen eta kontratistaren arteko erlazioaren aldetik. Aipatutako langileek dagokion baimena dutela frogatu beharko dute beraien jarduketa hasi baino lehen.	efectúe la entidad contratante a tal fin. Las sustituciones de personal no implicarán responsabilidad alguna para entidad contratante respecto de las relaciones del contratista con el personal afectado. Dicho personal deberá acreditar, previamente al inicio de su actuación que cuenta con la correspondiente autorización.
n) Gaixotasunak, oporrak, baimenak, lizentziak, istripuak eta abarrek sortutako bajengatik dauden lan absentziak betetzeko langileen ordezkatzea, kontratatutako zerbitzuen prestazio eraginkor eta jarraitua bermatzen duena. Hogeita lau orduko gehieneko epearen barruan.	**n)** El reemplazo de personal para cubrir las ausencias de trabajo ocasionadas por bajas por enfermedad, vacaciones, permisos, licencias, accidentes, etc., garantizando la prestación efectiva y continuada de los servicios contratados. Ello en el plazo máximo de veinticuatro horas.
o) Pleguan, Karatulan eta/edo gaian aplikagarria den estatuko eta Europar Batasuneko legislazioan aurreikusten denarekin bat datu pertsonalen babes aldetik kontuan hartu behar diren betebehar guztiak bete edo betetzea egiaztatzea.	**o)** El cumplimiento y la debida acreditación del cumplimiento de cuantas obligaciones le corresponda observar en materia de protección de datos personales de conformidad con lo previsto en el presente Pliego, en la Carátula y/o en la normativa nacional y de la Unión Europea aplicable en materia de protección de datos personales.
p) Karatularen 16. puntuan berariaz adierazten diren betebeharrak betetzea, hala dagokionean.	**p)** El cumplimiento de las obligaciones que, en su caso y con carácter específico, se indiquen en el **punto 16 de la Carátula.**
Karatulako 16. puntuan aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-	Las obligaciones previstas en el **punto 16 de la Carátula** tendrán el carácter de

betebeharrak izango dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratatzailearen nahierara.	obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en el artículo 211.1.f) de la LCSP, siendo por tanto el incumplimiento de las mismas causa de resolución del contrato, a voluntad de la entidad contratante.
22. PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES	**22. PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES**
Kontratistak araudi hauetan jasotako obligazioak bete beharko ditu: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa, eta kontratua indarrean den bitartean aplikagarria den datuak babesteko estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein arauri jarraikiz dagozkionak ere, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz gauzatuko diren datu pertsonalen tratamenduak direla eta, tratamendu horren Arduraduna den aldetik.	El contratista deberá cumplir con las obligaciones que para él se deriven de lo previsto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía Garantía de los derechos Derechos digitales Digitales y en cualquier otra normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos personales que resulte aplicable durante la vigencia del contrato por razón de los tratamientos de datos personales que lleve a cabo en el marco de sus actividades y por su propia cuenta y decisión, como Responsable de dicho tratamiento.
Hala dagokionean, betebehar horrek ez dio kalterik egingo **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezartzen denari, erakunde kontratatzaileak bere kontura egin dezakeen datu pertsonalen edozein tratamenduren inguruan.	La antedicha obligación se establece sin perjuicio de lo que, en su caso, se establezca con carácter específico en el **punto 17 de la Carátula** en relación con el eventual tratamiento de datos personales por cuenta de la entidad contratante.
23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU BETEBEHARRA	**23. CONFIDENCIALIDAD Y DEBER DE SECRETO**

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitakoari kalterik egin gabe, eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLn jasotako xedapenei kalterik egin gabe, erakunde kontratatzaileak ezingo du zabaldu lizitatzaileek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat izendatu duten informazioa. Konfidentziala izateak, besteak beste, honako hauei eragiten die: sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori, dela lizitazio-prozedura honetan, dela ondorengo beste batzuetan.	Sin perjuicio de lo previsto en la legislación vigente en materia de acceso a la información pública y de las disposiciones contenidas en la LCSP relativas a la a la publicidad de la adjudicación y a la información que deba darse a los candidatos y a los licitadores, la entidad contratante no podrá divulgar la información facilitada por los licitadores que éstos hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta. El carácter de confidencial afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en el presente procedimiento de licitación o en otros posteriores.
Kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta baldintza-agirian edo kontratuan isilpeko izaera eman bazaio, edo, bere izaera dela-eta, konfidentzialtzat hartu behar bada.	El contratista deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato a la que se le haya dado el referido carácter en los Pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal.
Konfidentzialtasun-betebehar hori **karatulako 18. puntuan** adierazitako epean mantenduko da.	Este deber de confidencialidad se mantendrá durante el plazo indicado en el **punto 18 de la Carátula.**
24. ERANTZUKIZUNA	**24. RESPONSABILIDAD**
Kontratista garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta zerbitzuen erantzulea izango da, baita entitate kontratatzailearen edo hirugarren pertsonen alde egingo diren kenketen	El contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la entidad contratante o para terceros

ondorioenak ere, kontratuaren gauzatzean egindako omisio, akatsak, okerreko metodo edo ondorioengatik.	de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.
Kontratistak ordainduko ditu kontratua gauzatzeko egin beharreko jardueren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak.	Será obligación del contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.
25. ASEGURUAK	**25. SEGUROS**
Kontratistak kontratuak irauten duen epe osorako, bere kabuz, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu, hor adierazten diren modu eta baldintzetan.	El contratista contratará para todo el plazo de duración del contrato, a su cuenta, los seguros indicados en el **punto 20 de la Carátula**, en los términos y condiciones indicados asimismo en el mismo.
26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA	**26. PROPIEDAD INTELECTUAL Y/O INDUSTRIAL**
Kontratistak baimendutako iturrietatik eta bere kostura bakarrik, ekipo informatikoen (hardware eta software) erabilera eta/edo esplotazioarako edozein lizentzia eta eskubide edo edozein motatako edozein laguntza ekipo eta/edo bitarteko lortu behar ditu, egungo Agirian eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezartzen denaren arabera, adskribatu, eman edo gauzatzean mantendu behar dituenak kontratuaren objektu diren zerbitzuen prestaziorako.	El contratista estará obligado a obtener de fuentes autorizadas y a su sola costa, cualesquiera licencias y derechos de uso y/o explotación sobre los equipos informáticos (hardware y software) o cualesquiera otros equipos y/o medios auxiliares de cualquier clase que, de conformidad con lo establecido en el presente Pliego y en el Pliego de Prescripciones Técnicas, deba adscribir, aportar y/o mantener en ejecución de la prestación de los servicios objeto de la misma.
Era berean, SPKLren 308.1 artikuluan ezarritakoa kontratazio honetara erabat aplikagarria izango da. Izate horretan, kontratuaren objektu diren zerbitzuen gauzatzearen emaitzaren gaineko jabetasuna, bere osotasunean edo edozein	Asimismo, será de plena aplicación a la presente contratación lo dispuesto en el artículo 308.1 de la LCSP. Siendo así, la propiedad sobre el resultado de la ejecución de los servicios objeto del contrato, en su integridad o en cualquiera de sus fases,

fasetan, entitate kontratatzailearenak besterenak ez dira izango. Hori guzti hori, hargatik eragotzi gabe egile-eskubide moralak eta/edo asmatzailetzat hartua izateko eskubidea, betiere Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo Patenteen uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera kontratistari baldin badagozkio, erakunde kontratatzaileak behar bezala bete beharko baititu horiek.	pertenecerá con carácter exclusivo a la entidad contratante. Todo ello, sin perjuicio de los derechos morales de autor y/o el derecho a ser reconocido como inventor que, conforme a lo establecido en el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual y/o en la Ley 24/2015, de 24 de julio, de Patentes, pudieran corresponder al contratista, que deberán ser debidamente observados por la entidad contratante.
Karatularen 19. puntuan izaera bereziarekin ezartzen denaren ondorioz, eta honi kalte egin gabe, hala dagokionean, kontratistak kontratuaren objektu diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua ziurtatu beharko dio entitate kontratatzaileari, derrigortuz, hala dagokionean, honen parte diren edozein elementuen baimen eta eskubide egokiak jasotzera modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik. Era berean, entregatzeko momentuan adierazi beharko dute emaitza horrek ez duela egungo kontratazioagataik entitate kontratatzaileari dagozkion eskubideen kontra jotzen duten inolako konpromisorik edo zergarik.	En consecuencia, y sin perjuicio de lo que, en su caso, se establezca con carácter específico en el **punto 19 de la Carátula**, el contratista deberá asegurar a la entidad contratante el uso pacífico del resultado de los servicios objeto del contrato, obligándose, en su caso, a obtener legítimamente y de fuentes autorizadas las licencias y derechos oportunos sobre cualquier elemento que forme parte del mismo, manifestando en el momento de su entrega que sobre dicho resultado no existen compromisos o gravámenes de ninguna especie que atenten contra los derechos que a la entidad contratante le correspondan en virtud de la presente contratación.
Nolanahi ere, kontratuan ez dauden hirugarren pertsonek egin ditatzeketen Jabetza Intelektual eta/edo Industrialari erlazionatutako edozein kexaren arduraduna kontratista izango da, honako gaiekin erlazionatuta daudenak:	En todo caso, el contratista será responsable de cualesquiera reclamaciones relativas a la Propiedad Intelectual y/o Industrial que puedan plantear terceros ajenos al contrato en relación a:
- Jabetza Industrial edo Intelektualen eskubideak babestuta dauden material,	- La utilización, en la prestación de los servicios, de materiales, herramientas y

tresneria eta beste edozein lanabesen erabilera, zerbitzuen prestazioan. - Aipatutako emaitzaren parte diren kontratazio honen objektu diren zerbitzuen emaitza eta/edo beste edozein elementu.	demás utensilios que estén protegidos mediante derechos de Propiedad Industrial o Intelectual. - El resultado de los servicios objeto de esta contratación y/ cualquier elemento que forme parte de dicho resultado.
Aurretik esandakoari kasu eginez, kontratistak entitate kontratatzaileari kalteordainketak egin beharko dizkio aipatutako kontzeptuekin erlazionatuta dauden erreklamazioetatik eratorri daitezkeen kalte-galerengatik.	Atendido lo antedicho, el contratista deberá indemnizar a la entidad contratante por todos los daños y perjuicios que para la misma puedan derivarse de las reclamaciones relativas a dichos conceptos.
27. ZIGORRAK	**27. PENALIZACIONES**
a) Atzerapenagatiko zigorrak.	**a) Penalizaciones por demora.**
Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, klausula-orri hauetan eta/edo karatulan jasotako exekuzio-epeetako edozein berandutzen badu, entitate kontratatzaileak kontratua suntsiaraztea aukeratu ahal izango du, klausula-orri hauetako 33. klausulan ezarritakoaren arabera, edo, bestela, kontratua gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, **karatulako 21. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko zaizkio entitate kontratatzaileari, dagozkion	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento de cualquiera de los distintos plazos de consignados en el presente Pliego y/o en la Carátula, la entidad contratante podrá optar, indistintamente, por la resolución del contrato, en los términos de la Cláusula 33 del presente Pliego, o por continuar en su ejecución, devengándose, en este último caso, a favor de la entidad contratante, adicionalmente a cualesquiera indemnizaciones de daños y perjuicios que procedan, las penalizaciones indicadas en el **punto 21 de la Carátula**.
Kontratista berandutzen bada, erakunde kontratatzaileak ez du aldez aurretik agindurik eman beharrik izango.	La constitución en mora del contratista no precisará intimación previa por parte de la entidad contratante.
b) Kontratatutako prestazioak gaizki gauzatzeagatik edo beste edozein kontratu-baldintza ez	**b) Penalizaciones por ejecución defectuosa de las prestaciones contratadas o incumplimiento de**

betetzeagatik jarritako zigorrak.	**cualesquiera otras condiciones contractuales.**
Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratatutako prestazioak gaizki gauzatu baditu edo beste edozein kontratu- baldintza bete ez badu, entitate kontratatzaileak kontratua suntsiaraztea aukeratu ahal izango du, klausula-orri hauen 31. klausulan ezarritakoaren arabera, edo kontratua gauzatzen jarraitu. Azken kasu horretan, **karatulako 21. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko dira, dagozkion kalte-galeren kalte-ordainez gain.	Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en ejecución defectuosa de las prestaciones contratadas o incumplido cualesquiera otras condiciones contractuales, la entidad contratante podrá optar, indistintamente, por la resolución del contrato, en los términos de la Cláusula 33 del presente Pliego, o continuar en su ejecución, devengándose, en este último caso, a favor de la entidad contratante, adicionalmente a cualesquiera indemnizaciones de daños y perjuicios que procedan, las penalizaciones indicadas en el **punto 21 de la Carátula**.
Zigorrak ordaintzeko, kontratistari ordainketa osoa edo partziala egiteagatik ordaindu behar zaizkion zenbatekoak kenduko dira, edo bermetik kendu ezin direnak. Bermea gainditzen duten zenbatekoak erreklamatuko dira.	Las penalizaciones se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse al contratista, o sobre la garantía, cuando no puedan deducirse de aquéllas, siendo objeto de la correspondiente reclamación en la cuantía que excedan de la garantía.
Nolanahi ere, bai kontratua suntsiarazteko aukerari dagokionez, bai kontratuari jarraipena emateko aukerari dagokionez, erakunde kontratatzaileak alde bakarretik erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea, bere kabuz edo hirugarrenen bidez. Bi kasuetan, jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko zaio, kalterik eragin gabe klausula honetan aurreikusitako kalte-galerengatiko kalte-ordainei eta gainerako ondoioei.	En todo caso, tanto de opción por la resolución como por la continuación del contrato, la entidad contratante podrá decidir unilateralmente la continuación del mismo durante el tiempo que estime preciso, por medios propios o de terceros, repercutiendo en ambos casos el coste de dicha continuación en el contratista, sin perjuicio de las indemnizaciones de daños y perjuicios y demás efectos previstos en la presente Cláusula.
28. KONTRATUAREN LAGAPENA	**28. CESIÓN DEL CONTRATO**

SPKLren 98. artikuluko kontratistaren ondorengotza-kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratu-lagapenaren bidez bakarrik egin ahal izango da, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta betiere aukera hori berariaz aurreikusita badago **karatulako 22. puntuan.**	Al margen de los supuestos de sucesión del contratista del artículo 98 de la LCSP, la modificación subjetiva del contrato solamente será posible por cesión contractual, dentro de los límites establecidos en la presente Cláusula y siempre que dicha posibilidad esté expresamente prevista en el **punto 22 de la Carátula.**
Lagapenak SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) letretan eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu, hau da:	La cesión requerirá el cumplimiento de los requisitos exigidos en las letras a), b), c) y d) del artículo 214.2 de la LCSP, a saber:
a) Kontratazio-organoak aldez aurretik eta berariaz lagapena baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako moduan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igarotakoan, baimena eman dela ulertu beharko da.	**a)** Que el Órgano de Contratación autorice, de forma previa y expresa, la cesión, en los términos indicados en el artículo 214.2.a) de la LCSP. El plazo para la notificación de la resolución sobre la solicitud de autorización será de dos meses, transcurrido el cual deberá entenderse otorgada.
b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.	**b)** Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato, en los términos indicados en el artículo 214.2.b) de la LCSP.
c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izatea, eskatutako sailkapena izatea eta kontratatzeko debekuaren kausaren batean sartuta ez egotea, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.	**c)** Que el cesionario tenga capacidad para contratar con entidades del sector público, posea la solvencia económica y financiera y técnica o profesional exigida y no esté incurso en una causa de prohibición de contratar, en los términos indicados en el artículo 214.2.c) de la LCSP.
d) Lagapena esleipendunaren eta lagapenhartzailearen artean	**d)** Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en

formalizatzea, eskritura publikoan, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.	escritura pública, en los términos indicados en el artículo 214.2.d) de la LCSP.
Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.	El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.
29. AZPIKONTRATAZIOA	**29. SUBCONTRATACIÓN**
Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, **karatulako 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik.	El contratista podrá concertar con terceros la realización parcial de la prestación con sujeción a lo que disponga la presente Cláusula y el artículo 215 de la LCSP, salvo las prestaciones indicadas, en su caso, en el **punto 23 de la Carátula.**
Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari azpikontratuak egiteko asmoa, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean. Horrez gain, azpikontratatzailearen nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak adierazi beharko dizkio, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak azpikontratazioa gauzatzeko duen gaitasuna, dauzkan elementu teknikoei eta giza elementuei eta esperientziari dagokienez, eta egiaztatu beharko du ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.	El contratista deberá comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de este, al Órgano de Contratación la intención de celebrar los subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales del subcontratista, y justificando suficientemente la aptitud de este para ejecutarla por referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y a su experiencia, y acreditando que el mismo no se encuentra incurso en prohibición de contratar de acuerdo con el artículo 71 de la LCSP.
Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzean informazio hori aldatzen bada, bai eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.	El contratista principal deberá notificar por escrito al Órgano de Contratación cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre los nuevos subcontratistas.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, horren berri ematea nahikoa izango da kontratuaren gaitasuna egiaztatzeko.	En el caso que el subcontratista tuviera la clasificación adecuada para realizar la parte del contrato objeto de la subcontratación, la comunicación de esta circunstancia será suficiente para acreditar la aptitud del mismo.
